

SAGARRA-MANZANA

2015 uztako sagardo sagarraren heldutasunaren egoera.

SAGARDOAREN LURRALDEA - 14/09/2015 · 11:02

Sin comentarios



Aurreko urteetan bezala, 2015 uztako **XIV. sagardo sagarraren heldutasunaren txostena** aurkezten dugu. Puntu nagusiak hauek dira:

- **2015 uztako sagar barietate batzuk (Patzolua, Aritza, Mozolua, eta Gezamina) bi aste aurreratu da** iazko urtearekin alderatuta.
- **Orokorki loraldia berandu etorri da.** Eguraldia ikusirik udaberria euritsua eta uda beroa izan ditugu.
- **Ekoizpen ona dago sagasti gehienetan, kasu batzuetan gehiegi eta ondorioz adar asko hausten ari dira.**

• **Almidoiaren erregresioa 3,6ko indizean dago, hau da, azken lau urteetako altuena da.**

Iraila hasieran eta azken urteetan bezala, Gipuzkoako sagasti ezberdinetan kontrol bat egin zen, sagarren egoera ezagutu ahal izateko. Honetarako, Gipuzkoako zenbait sagasti jarraitu genituen eta 14 barietate kontrolatu dira: Aritza, Errezila, Gezamina, Goikoetxe, Manttoni, Moko, Mozolua, Patzolua, Txalaka, Udare Marroi, Urdin, Urtebi Haundi, Urtebi Txiki eta Verde Agria.

Aurtengo ezaugarri garrantzitsuenak hauek izan dira: Orokorki loraldia berandu etorri da. Eguraldia ikusirik udaberria euritsua eta uda beroa izan ditugu.

Sagasti batzuk kenduta, ekoizpen ona dago sagasti gehienetan, kasu batzuetan gehiegi eta ondorioz adar asko hausten ari dira. Barnekaldean lehortea bereziki nabaria izan da udan zehar eta horrek eragina izan du sagarren kalibrean.

Aurkezten dugun heldutasunaren txosten hau www.sagardoarenlurraldea.com orrialdean eskuragarri dago.

Sagarreko harra edo arjoa

Aurten arjoaren presentzia altua eta etengabea izan da sagasti gehienetan, etengabeko erasoaldiekien belaunaldi bakoitzeko. Aurten 3 belaunaldi izan ditugu, eguraldi beroaren ondorioz.

Sagarraren heldutasuna

Heldutasun kontrola iraileko 2. astean egin dugu, aurreko urteetan bezala. Heldutasuna neurtzeko bi modu erabili ditugu: lehenengoan, azukre maila jakiteko, sagarren indize refraktometrikoa (°Brix) neurtu da; eta bigarrenetan, almidoiaren erregresioa jakiteko, iodo indizea neurtu da, 1etik 10erako eskalan, Europako araudiari jarraituz.

Indize refraktometrikoa – °Brix

Heldutasunaren txostenean iraileko 2. asteko brix graduen garapena ikus dezakegu. Bertan, 2015. urteko °Brix datua, 11,2 °Brixekoa da, aurreko urtekoa baino gradu bat gehiagorekin.

Heldutasunaren txostenean azken 10 urtetako °Brixen datuak ikus daitezke.

Heldutasunaren txostenean azken bost urteetako barietate ezberdinen indize refraktometrikoa (°Brix) ikus daiteke, iraileko 2^a astean.

Barietatez barietate begiratuta, aurtengo kontrolean °Brix altuenak Goikoetxe eta Urdin 12,1rekin dituzte. Aldiz, baxuenak, Manttoni 10,3rekin eta Aritza 10,4 °Brix-ekin eman dituzte. Sagastien kokapena begiratuta, orokorki barnekaldeko sagastiak °Brix altuagoak dituzte. Kostaldean eurijesak handiagoak izan dira udan zehar eta horrek ekarri du °Brixen diferentzia.

Almidoiaren erregresioa

Heldutasunaren txostenean almidoiaren erregresioaren garapena ikus dezakegu. Aurtengo datua, azken 3 urtetakoa baino altuagoa da, 3,6ko indizea eman baitu.

Heldutasunaren txostenean azken 10 urtetako °Brixen datuak ikus daitezke:

Heldutasunaren txostenean azken bost urteetako almidoiaren erregresioa ikus daiteke, barietate ezberdinetan

Sagardoaren Lurraldea



Kale Nagusia 48
20115 Astigarraga
t: 00 34 943 550 575
f: 00 34 943 559 575
info@sagardoarenlurraldea.com
www.sagardoarenlurraldea.com

RSS Feed
Twitter
Facebook

Buscar / Bilatu

Categorías

Agenda-Agenda
Azokak-Ferías
Ekitaldiak-Eventos
Errezetak-Recetas
Esperientziak-Experiencias
Formazioa-Formación
Gastronomia-Gastronomía
Historia-Historia
Kultura-Cultura
Lehiaketak-Concursos
Museos-Museoak
Prentsa-Prensa
Sagarra-Manzana
Sagastia-Manzanal
Sidra-Sagardoa
Sidrerías-Sagardotegiak
Sin categoría
Turismoa-Turismo

Post Recientes



Sagardoetxeako Dokumentazio Zentroa: sagarra eta sagarrondoei buruzko liburu eta artikulu zaharrak.



Sagardoaren kulturaren inguruko bideoak, tweet-ak, bisitak...



Sagardoaren Hiztegia: "Sagardoa".

iraileko 2^a astean:

Goikoetxe barietatea alde batera utzita, erregresio altuenak Patzolua 5,9rekin, Mozolua eta Aritza 4,6rekin, eta Gezamina 4,5rekin izan dituzte. Aldiz, Errezil 1,4, Moko 1,8rekin eta Udare Marroi 1,9ekin baxuenak izan dituzte.

Puntu garrantzitsuenak:

Orokorrean, 2015ko iraileko lehenengo hamabostaldian, sagastietan azaldu diren zenbait puntu bereizi ditzakegu:

- Barietate eta sagastien artean, ezberdintasun nabarmenak daude.
- Aurreko urtearekin konparatuta heldutasuna zeozer aurreratuta dator.
- Azukre maila begiratuta, aurtengo urteak, batzaz beste 11,2 °Brix du. Aurreko urtekoa baino gradu bat gehiago.
- Almidoiaren erregresioa 3,6ko indizean dago, hau da, azken lau urteetako altuena da.
- Heldutasun datuak ikusita (almidoiaren erregresioaren arabera) Goikoetxe barietate kenduta, 3 barietate talde ikus daitezke:
 - Aurreratuenak: Patzolua, Aritza, Mozolua, eta Gezamina.
 - Erdikoak: Urtebi Txiki, Txalaka, Manttoni, Verde Agria eta Urtebi haundi.
 - Atzeratuenak: Urdin, Udare Marroi, Moko eta Errezila.

Escuratu "2015 uztako agardo sagarraren heldutasunaren egoera" PDF formatuan.

AITOR ETXEANDIA AZPIAZU – SAGARLAN S.L
Fruitugintzan Aholkularia, 2015ko irailaren 10a.

Tags: Aitor Etxeandia, almidon, brix, heldutasuna, informe, maduración, Manzana, manzana de sidra, sagardo sagarra, Saggara, txostena

Anterior post

"Txerriboda & Sagardofesta" en las Fiestas Vascas de Ordizia."Txerriboda & Sagardofesta" Ordiziako Euskal Jaietan.

Siguiente post

26 de septiembre, II Sagardobide Erronka en Astigarraga.Irailak 26, II Sagardobide Erronka Astigarragan.



Sagarra oliba olioaren dastaketan.



Sagarrondoaren desagertzea etareproduzioa XIX. mendean Aguirre-Miramón-en arabera.

Comentarios recientes

Edna Reyna en Astigarragako 40. Sagardo Egunaren ospakizun arrakastatsua.

Sagardoaren Lurraldea en Sagardoaren munduko bitxikeriak: lizar adarra, kalitate oneko sagardoaren erakusle.

Jarras también en las antiguas sagardotegis | pitxTapitch en Sagardoaren munduko bitxikeriak: lizar adarra, kalitate oneko sagardoaren erakusle.

Sagardoaren Lurraldea en "Sagastiak loretan" ospakizuna Sagardoaren Lurraldean.

Marisa en "Sagastiak loretan" ospakizuna Sagardoaren Lurraldean.

Tu comentario / Zure komentarioa

Nombre *requerido*

Email *requerido*

Web

Enviar